



BILDU Talde Politikoa
Grupo Político BILDU

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 – Faxa 943481720 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Donostian 2014ko apirilaren 4ean

SIRIA-ROKAJA ESKUALDE KURDUETAKO EGOERARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA

Siriako gutxiengo nagusia dira kurdutarrak. 2011Ko altxamendutik hona hirugarren bide bat markatu nahi izan dute kurdutarren eskubideak eta existentzia bera ukatu nahi izan duen gobernutik zein Al Qaedaik gertuko taldeen agenda ardatz duten oposizioko taldeetatik.

Errealitate hori zuzenean ezagutzeko parada izan zuten udala osatzen duten talde politiko guztiek 2014 Martxoaren 6an, Siria aldeko kurduen delegaritzari harrera egin baitzien eta horren ostean haien hitz gordinak baina baikorrak entzuteko abagunea izanik.

Hala, Siriako kurduak euren burua bi banduren arteko guda baten erdian ikusten dute, kurduen existentzia onartu nahi ez duten bi alde, bakoitzak nazioarteko potentzia batzuen laguntza duelarik. Kurduen kontrolpean dauden lurraldeak dira, hain zuzen ere, gerrak herrialde osoari ekarri dizkion ezbeharretatik libre dauden bakarrak. Yihadisten jazarpena -Turkiak lagunduta- jasan arren kurdutarrek Giza Eskubideetan, konfesionaltasun-eza, genero berdintasun eta hizkuntza kurdu, arabiar eta siriarraren koofizialtasunean oinarrituriko konstituzioa egin dute. Kontratu sozial honen arabera eskualde kurdutar autonomoa “etortzear legokeen gobernu federaleko estatu siriar baten zati” litzateke.

Proiektu horren izaera integratzailearen erakusle da Aleppo, Homs edota Hama moduko lekuetatik ihes egindako milaka desplazatu arabiarrek Siriako Kurdistanen babes aurkeztu izana. Zoritxarrez komunitate honen iraupena arrisku larrian dago eraso islamista dela eta. Nazioarteko ikuskariek eta Giza Eskubide erakundeek eraso hauek salatu dituzten arren nazioarteko komunitateak begiak itxirik dirau errealitate honen aurrean.

Izan ere, Ginebrako bake elkarrizketa saiakeretara Siriako kurduak ez gonbidatu ez ezik, afera kurdua bera ere ez zen eztabaidagai izan.

Honegatik guztiagatik, Donostiako Udalak honakoa adierazten du:

1. Donostiako Udalak dei egiten die Turkiako erakundeei beren mugetatik Siriako zonalde kurdura giza laguntzari sartzen uzteko. Irakeko Eskualde Autonomo Kurduaren jokabidea salatu nahi da, Turkiarekiko merkatu harremanak oinarri izanda Siriako eskualde kurduak blokeaturik baitu, giza laguntza bera ere pasatzen utzi gabe.

2. Donostiako Udalak Kobani izeneko herri kurduari egindako eraso eta bertan egondako sarraskiak salatu nahi ditu.

3. Donostiako Udalak NBeri dei egiten dio Siriako kurdutarrei aukera emateko etorkizuneko bake negoziaketetan parte har dezaten, euren proposamen demokratikoa ekarpen handia izan izan bailiteke Rojavan zein herrialde osoan egonkortasuna eta bakea lortzeko, eta Espainiako Gobernuari dei egiten dio bere jardunean zein Europar Batasunaren baitan gatazkaren konponbidea sustatu dezan Nazio Batuen Erakundeak ezarritakoaren arabera.

4. Donostiako Udalak bere babesa ematen dio kurduen autogobernu federal proiektu zilegi eta demokratikoari.

Josu Ruiz Martin
BILDU Udal Taldearen Bozeramailea